

## EUSKALTZAINBURUAREN SARRERA HITZAK (\*)

Biltzarkideak, agur!

Euskaltzaindiaren historian badira bi gertakari nagusi:

— Lehen, “kanpora jalgitzea” 1918-1919an, lehen aldikotz bildu zirelarik euskaltzainak Gipuzkoako Foru Aldundian 1919ko urriaren 7an.

— Bigarrena, Arantzazuko Biltzarrean, euskara batuaren “kanpora jalgitzea” 1968ko urriaren 3tik 5era.

Bi gertakari horien ospatzeko, biak elgarrekin, bigarrena lehenaren ondorioa izan baita urre-ezteikari, Euskaltzaindiak erabaki du deituko zituela biltzar nagusi batera —XIII.a hain zuzen— Euskal Herri osoan euskararen eta euskal kulturaren alorrean lanean ari direnak.

Hogeita bost urtez an egin da, euskara batua errotu da Euskal Herri guzian, euskal komunikabideak sortu dira, handitu, hedatu, euskal irakaskuntza indartu maila guzietan, unibertsitateak barne, eta denetarik etorri ziizkigu galdeak, euskara baturantzerako bide luze horretan urrats bat gehiago ematekoarenak.

Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioako campusean ospatuko da, beraz, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Horretara gomiatuak zarete eta horri buruz lanean ari izan dira Euskaltzaindiko batzordeak, hemen bertan dauzkagularik hauen emaitzak:

— *Euskara Batuko batzordeak* azken urteetan batasunerako emaniko gomendioak aurkeztuko dizkizue.

— *Gramatika batzordeak* bere proposamenak egiten ditu euskara batuari buruz, haien artean hitanozko formak. Aldi berean azken urteetan hedatu diren erabilera okerrak bildu eta forma zuzenak zein diren adierazten dute.

— *LEF batzordeak* erator-atzizkien inguruko zalantza eta desbideratzeak aztertzen ditu.

---

(\*) Leioako XIII. Biltzarrean eztabaidarako banatu ziren batzordeen txostenen ‘sarrera hitzak’.

— *Hiztegi Batuko batzordeak* bere irizpideak proposatzen dizkizue.

*Literatura batzordearen* lana da euskal metrikan diren nozioen eta hiztegiaren finkatzea, irakaskuntzak ukan dezan batasunerako bide bat.

— *Onomastika batzordea* exonomastikaz arduratu da, ikusiz nola idatzi euskaraz atzerriko jende eta leku izenak, batasuna lortu nahiz komunikabideetan.

*Ahoskera batzordeak*, azkenik sortua denak, eskara idatziaren ahoskeraren inguruan egin du lan.

Urtarriletik eta uztaila arte jardunaldien bidez eztabaidatuak izan dira batzorde bakoitzaren proposamenak eta hemen doazkizue, aski goiz, zuen iritziak, idatziz, nahi bailituzke ukan Euskaltzaindiak biltzarra baino lehen, jakinik mintzatzeko ahala ukanen duzuela eztabaidetan.

Joan den urteko urriaren lean, Oñatiko bilkuran erran dudana bezala, XIII. Biltzarra irekia izanen da. Dei zabal bat egin du Euskaltzaindiak, bertzeen iritziak lortu nahi baititu, gehiengoaren onespena aardietsi, duela hogeita bost urte euskara baturantz urratu zuen biderearen hobeki segitzeko.

Euskara landu, euskara hobetu, euskara gaurkotu, hau da Euskaltzaindiaren helburua XIII. Biltzarreko lankide guziekin egin gogo duena.

Aitzinetik milesker.

Jean Harischelhar,  
euskaltzainburua